

**EAEko eta NAFARROAko**  
**Gobernuen politiken balorazioa**  
2014ko ABENDUA



# 1. Diagnostikoa

## • SARRERA

Gobernuek eta instituzioek egoera ekonomikoaren inguruan azaltzen duten baikortasunak ez du oinarri sendorik. Datuek erakusten dute egoera sinestarazi nahi diguten baino okerragoa dela. Aurrean duguna hauteskunde-estrategia bat da, gobernuen gelditasuna eta aberatsen borondatearekiko mendetasuna ezkutatu nahi dituen.

Gelditasun eta mendetasun horren oinarrian dagoena kontu publikoentzat ezarritako lehentasuna da, hots, defizitaren helburuak betetzea eta zorra ordaintzea; konstituzioaren erreforma espres baten bidez onartuta, politika horrek neurri handi batean mugatu du gure instituzioen jardute-ahalmena.

Horrez gain, baina, Gasteizko eta Nafarroako gobernuen politikak erabakigarriak izan dira krisiaren sorrerarako eta iraupenerako. Hala, hobera egin beharrean, egoerak okerrera egin du nabarmen, eta horren ondorioa langabezia, prekarietate eta pobrezia izan da.

Jarraian azalduko dugun bezala, euskal instituzioek ez dituzte hartu egoerari buelta emateko beharrezkoak izango liratekeen neurriak; are gehiago, neurri egokiak hartu gabe jarraitzen dute. Ez dute herritarren aldeko konpromisorik hartu, ez dute haien oinarriko beharrei erantzutearen aldeko herrialde apusturik egin, kalitatezko enpleguari, zerbitzu publiko unibertsalei eta prestazio sozial duinei dagokienez.

## • EUSKAL HERRIKO EKOIZPEN SAREA

### - Lehenengo sektorea

Gure BPGan duten pisua oso txikia izan arren, nekazaritza eta arrantza oso garrantzitsuak dira gure herrialdeko eskualde askorentzat eta garapen integral eta dibertsifikatuarentzat. Hala eta guztiz ere, haien bilakaera oso negatiboa izan da azken urteotan.

Bruselan hartutako erabakiek kalte egin diote gure arrantzari, eta, gisa berean, Europan zenbait hamarkadaz garatutako nekazaritza-politika bateratuak (NPB) nekazaritza latifundista bultzatu du. Nekazaritzako balantza negatiboa da, multinazionalen garrantzia gero eta handiagoa da, eta elikadura-burujabetzatik urrun gaude.

### - Industria sektorea

Hainbat urtez, industriak pisu mardula izan du gure ekonomian, eta gai izan gara industria handitik industria berrietara pasatzeko, baina azpimarratu behar dugu mundu mailan atzera egin dugula nabarmen. Industria-sarearen suntsipena azkartu egin da. Adibidez, Arabaren kasuan, industria-sarearen % 30 desagertu da urte horietan.

Datu hori are eskandalagarriagoa da kontuan hartzen badugu euskal ekonomiaren produktibitatea gure ingurune herrialdeetako batez bestekoa baino % 28,5 handiagoa dela (Orkestra): gure produktibitatearen tasa EB-15eko bigarrena da, Luxenburgoko tasaren ostean.

Ez dago plan industrial sendorik, hau da, plan bakarra da merkatuak erabaki dezala enpresen itxiera, deslokalizazio eta sorreraren inguruan. Gure ekoizpen-sareko enpresa esanguratsu ugari itxi, lekuz aldatu edo saltzen diren bitartean, gure instituzio publikoen jarrera hori deitoratzea da, besterik ez.

Gero eta enpresa gehiago pasatzen ari dira atzerriko kapitalen eta inbertsio-funtsen eskuetara. Industriaren zein osasungintzaren alorrean, multinazionalak hainbat enpresa garrantzitsuren kontrola bereganatu dute.

Esan dezakegu, nonbait, aldagai jakin batzuetan espainiar Estatuaren batez bestekoaren gaintik gaudela; hori egia da, baina Euskal Herriko ekonomia gurearen antzekoak diren europar eskualdeetakoekin alderatu behar dugu, ez espainiar ekonomia ahularekin.

Badira gure ekonomian oraindik ere pisu handia duten zenbait sektore, hala nola siderurgia, baina sektore horiek baztertu gabe beste batzuk ere bultzatu beharko ziratekeen. Horretarako, beharrezkoa izango zen I+G+b-aren alde egitea, sendotasunez, alor horretan gaur egun dauden baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiltzeaz batera. Nolanahi ere, eta zoritxarrez, zementuaren politikak aurrekontuen zati handi bat eraman du beretzat Euskal Herrian ere.

Ez dira kontuan hartu alor honetan egin ditugun eskariak, hots, instituzioen arteko mahai industrial bat eratzea, sindikatuen parte-hartzearekin, pertsonen eta gure ekoizpen-ehunaren aldeko eredu sozio-produktibo bat eraikitzea zuzendutako neurri drastikoak hartzeari begira.

### **- Energia sektorea**

Espainiar Estatuak Europako energia garestiena duen hirugarren estatua da, eta, hortaz, EAE eta Nafarroa ere egoera berean daude energiaren prezioari dagokionez.

Eustaten datuen arabera, kWh-aren prezioa % 74,5 igo da 2007az geroztik, 0,1752 eurora iritsita; Alemanian, berriz -adibide bat jartzeko-, prezioa 0,1493 euro dira.

Bitartean, errentak modu eskandalagarrian bideratzen dira oligopolio elektrikoetara, enpresek eta kontsumitzaileek ordaintzen duten fakturaren bitartez, prezioak jartzeko sistemaren eraginez, hau da, tarifa-defizita deritzanaren eraginez. Estatuko enpresa elektrikoaren mozkin-marjina beren homologoen europarrena baino bi aldiz handiagoa da: hala, 2012 urtean, % 6,78 eta % 2,6 izan ziren, hurrenez hurren. (Espainiako energia berriztagarrien plana ebaluatzeko txostena. Fernando Prieto eta beste autore batzuk).

Ez dagoenez energiari buruzko estrategia propiorik, gure herrialdean atek ireki zaizkio energiaren neurritz gairako erazketari eta espekulazioari, erregai fosiletan oinarrituta: eskisto-gasa, hidrokarburoak, harea bituminosen finketa...

### **- I+D+b. Berrikuntza maila eskasa**

Gaur egun, gure industriak sortzen dituen ondasunen % 60 maila teknologiko txiki edo ertainekoa da; energia kontsumoari dagokionez, berriz, orokorrean oso industria intentsiboak dira. Oraindik ere, gutxi dira maila

teknologiko handia duten enpresak, eta patente kopuruak behera egin du azken urteotan.

I+G+b alorrean egiten den inbertsioa gure per capita errenta maila berdintsua duten herrialdeetakoaren erdia baino apur bat handiagoa da. Nafarroari dagokionez, BPGaren % 1,91 izan zen 2012an, eta EAEn % 2,19 (2013an: % 1,99). Gure per capita errenta edo produktibitate maila berdintsua duten herrialdeek, berriz, BPGaren % 3,5 inbertitzen dute, eta, hortaz, oso urrun gaude haien inbertsio mailatik.

Berrikuntza soziala, langileek enpresan inplikatzeko eta parte hartzeko estrategia gisa, ez da ia existitzen. Enpresa ereduak aldatu gabe mantendu da XIX. mendean geroztik, jabetza eta boterea enpresarien eskuetan daude, eta horiek beren nahierara erabiltzen dituzte.

### **- Kapitalen ihesa**

Euskal kapitalaren esportazioarekin jarraitzen dugu. Bereziki azpimarratzekoa da Euskal Herritik kanporatzen den eta atzerrian inbertitzen den kapitala, oso handia baita. Printzipioz, ez litzateke inolako arazorik egon behar kapitala esportatzeko; arazoa da hori hemengo kapazitatek ezagatik gertatzen dela, maila txiki edo ertaineko teknologia izatearen ondorioz –adibidez–.

ORKESTRAREN datuen arabera, 1993 eta 2011 urteetan bitartean 79.461,6 milioi euroko euskal kapitala esportatu da.

### **- Finantza-sektorea**

Espainiar estatuko bankak EBko kreditu garestiena du, bai familientzat eta bai ETEentzat (enpresa txiki eta ertainak). 2014ko lehenengo seihilekoan, Espainiako Bankuaren datuen arabera, espainiar Estatuko maileguren batez besteko interesa % 10 izan zen, eta europar maileguena % 5,95.

Euskal Kutxen likidazioa hondamen izugarria izan da HEHko ekonomiarentzat. Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak beren bide-orria itxi dute Euskal Kutxen likidazioarekin eta Kutxabanken eta CANen behin betiko pribatizazioarekin. Beste urrats bat banka handiaren eta espekulatuzaileen aldeko estrategian, euskal aurrezkien kudeaketaz jabetzeko bidean.

Estrategia horrekin, akziodun pribatuen zerbitzuan jartzen da guretzat funtsezkoa den baliabide bat, hots, gure ekoizpen-sarea garatzeko, euskal kreditua eta aurrezkiak gizarteratzeko eta gure bizi-baldintzak hobetzeko funtsezkoa den baliabide bat.

### **- Zerbitzuen sektorea**

Banaketa eta merkataritzari dagokienez, zerbitzuen sektorearen oinarria izan da merkatuari funtzionatzen uztea eta merkataritza-zentro handiak jartzeko bidea erraztea. Gure banaketa-zentroen estrategia oso urrun dago gure ekoizpenarekin zuzeneko lotura izatetik; aitzitik, gero eta garestiagoa eta kutsagarriagoa den mugikortasuna bultzatu da eta ordutegiak liberalizatu dira, multinazional handien mesederako.

Ekoizpenaren aldeko zerbitzuen ardatza, funtsean, zementuaren eta obra faraonikoen negozioa da –Abiadura

Handiko Trena, adibidez-, haien errentagarritasun soziala txikia izan arren.

Enpresei zuzendutako zerbitzuen alorrean, hala nola kudeaketa estrategikoa sustatzeko, enpresa-elkarteak sortzeko, internazionalizatorako eta marka-irudia bultzatzeko zerbitzuak oso urrun daude beharrezkoa izango litzatekeen mailatik.

## • POLITIKA EKONOMIKOA ETA GARAPEN EREDUA

### - Politika Fiskala

Zerga-sistema mesedegarria da kapital-errententzat eta kaltegarria lan-errententzat, eta ez da bidezkoa ekitatearen ikuspuntutik.

Hego Euskal Herriko presio fiskala europar estandarren azpitik dago alde handiz. Hain zuzen ere, 2011 urtean, EAEko batez besteko presio fiskala BPGaren % 31 izan zen, eta EBkoa % 38,8. Nafarroan, berriz, presio fiskala BPGaren % 28ra baino ez zen iritsi, hau da, EBko batez bestekoa baina 10,8 puntu txikiagoa izan zen, BPGaren bidez neurtuta. (LABen fiskalitateari buruzko txostena).

Europar Batasuneko batez bestekoekin alderatu beharrean gure per capita errenta berdintsua duten herrialdeekin alderatuz gero, presio fiskala are txikiagoa da BPGaren ikuspuntutik. Horren arrazoia kapital-errentek zergetan duten tratu mesedegarria da, eta, are okerrago, iruzur fiskalak, paradisu fiskalek eta ezkutuko ekonomiak duten permisibitatea.

### - Aurrekontu-politika

Eremu instituzionaletik ez da aberastasuna birbanatzeko politikarik bultzatu, zerga- eta aurrekontu-politikaren bitartez, gizarte-babes, hezkuntza, osasun eta bizi-baldintza duinetarako eskubidearen erabilera errazteari begira; aitzitik, guztiz kontrakoa egin da:

- Gastu sozialera zuzendutako aurrekontu-partidak gero eta urrunago daude Europako batez bestekotik. Ez da helburutzat hartzen Europarekin bat egitea osasungintza, hezkuntza eta gizarte-babesaren eremuan –konbergentzia-. Hala 2009tik 2014ra bitartean, gastu soziala gero eta gehiago murriztu da, zeren aurrekontuaren % 69,6tik % 68,5era pasatu baita.
- Murrizketak eta berrordainketa zerbitzu publikoen unibertsaltasuna urritzen ari dira neurri nabarian; horren ondorioz, gainera, itxarote-zerrendak gero eta luzeagoak dira osasungintzan, enplegu publikoa suntsitzen ari da,...
- Inbertsioen kapitulua munta txikikoa da. Hala, aurrekontuek ezinbestekoak diren funtzionamendu-gastuei aurre egiten diete, besterik gabe, atzeraldian eta murrizketetan oinarritutako ziklo ekonomikoa apurtzera zuzendutako ekintza irmorik gabe.
- Finantza-egonkortasunaren legeak eta defizitaren irizpideek baldintzatuta, kontu publikoak etengabe murriztu dira urtetik urtera. Finantza-karga (zorraren amortizazioa eta interesen ordainketa) % 21,4 igoko

da 2015ean, aurrekontuaren igoeraren % 41 baino gehiago xurgatuz. Hain da zentzugabea egoera, non diru-bilketaren igoeraren azken onuraduna bankaren mundua izango den, hau da, krisiaren eragile nagusia.

#### • LAN HARREMANEN EREDUA

##### - **Negoiazio kolektiboa suntsituta geratu da erreformen eta gobernuen jardunaren ondorioz**

Lan-erreformak negoiazio kolektiboa ezereztu du. Gainera, erabateko boterea eman die enpresariei enpresa-kudeaketaren inguruko erabakietan. Hori guztia negoiazio kolektiboa suntsitzen ari da, lan-baldintzak hobetzeko tresna gisa.

Administrazio publikoak, patronal gisa arituz, bere kabuz erabakitzen du zer baliabide esleitzen dizkion eskaintzen dituen zerbitzuei; soldatei eta lan-baldintzei buruzko erabakiak hartzen ditu, berak bakarrik. Sektore publikoko negoiazio kolektiboa itxura besterik ez da, zeren instituzioak epaile eta alderdi baitira aldi berean.

##### - **Elkarrizketa soziala ez da existitzen**

Parte-hartze instituzionalerako tresnak alferrikakoak dira, hala EAEn nola Nafarroan, hau da, ez dira operatiboak eta ez dute eragin errealik izaten politika publikoen definizio eta ebaluazioan; izan ere, EAEko eta Nafarroako gobernuen eta patronalaren artean ezarritako aliantzaren apendizak hutsak dira.

Eusko Jurlaritzak tresna gisa erabili nahi du elkarrizketa soziala patronalaren aldeko politikak berresteko, erreformak finkatzeko eta bere politika publikoei eusteko. Horretarako, CCOO eta UGTren laguntza osoa du. Sindikatu horiek patronalarekin duten mendetasun-posizioaren eraginez, ezinezkoa da gutxieneko bermeak dituen elkarrizketa sozialik bideratzea.

Nafarroako Gobernuak ordezkariak sindikalaren % 40 kanpo utzi duen elkarrizketa soziala aprobetxatu du nahi duen guztia egiteko eta desegiteko. Nafarroako CCOO eta UGT hango erregimenaren sostengu nagusia izan dira, hots, Nafarroako herritarren interesetatik gero eta urrunago dagoen erregimen horren sostengu nagusia.

#### • **ESKUMEN-AHALMEN GERO ETA TXIKIAGOA**

Legedia alor guztietan erreformatzearen bitartez, euskal instituzioak Estatuan gauzatzen diren politiken transmisore huts bilakatzen ari dira. Hori arriskua larrian jartzen ari da herri gisa gauzatu nahi dugun proiektu ekonomikoa.

Legegintzaldiaren lehenengo bi urteetan, Rajoyren gobernuak 61 lege onartu ditu. Horien artean, 47 "dekretazoak" izan dira, alor hauetan eragina izan dutenak: lan-eremua, finantza-sektoreak, pentsioak, gizarte-babesa, osasungintza, hezkuntza, askatasun zibil eta sindikalak. Horiek guztiak EAEn eta Nafarroan aplikatzen ari dira. Batzuetan, Hego Euskal Herriko gobernuak inposizioaren argudioa erabili dute kanpora begira, murrizketen agenda neoliberalarekin bat datozeela ezkutatzeko. Are gehiago, batzuetan aurrendari ere izan dira agenda horretan.

## **2. Politika neoliberalet gure herrian dituzten ondorioak**

### **• MERKATUA ETA -ONDORIOZ- BOTERE EKONOMIKOA DIRA POLITIKA EKONOMIKO ETA SOZIALAZ ERABAKITZEN DUTENAK**

Susperraldi ekonomikoa –krisia gainditzea- merkatuaren eskuetan uzten da. Hego Euskal Herriko gobernuek oso argudio ezagunak erabiltzen dituzte ekonomia bizkortzearen inguruan, irtenbide bakartzat hartuta: kostuak murriztea, nazioarteko merkatuetan lehiatu ahal izateko; gero eta baliabide gehiago jartzea jadanik baliabide gehien dituztenen eskuetan, ekoizpen-ehunean eta enpleguaren sorreran inbertituko dutelakoan, hori funtsik gabeko itxaropena izan arren.

Nolanahi ere, gehien dutenek eta errentistek berenganatutako aberastasuna espekulaziora eta paradisu fiskaletara iristen da azkenean, finantza-sistemaren eskutik.

### **• HAZKUNDE EKONOMIKOA HUTSAREN HURRENGOA DA**

Garbi dago, nonbait, BPGaren hazkundeak ezin onar daitezkeen errealitateak ezkututzen dituela (ingurumenaren suntsipena, kutsadura, armamenturako gastua...). Hala eta guztiz ere, botere ekonomikoak mantra bihurtu du BPGaren hazkundera, eta, beraz, gure ongizatea haren mende dagoela sinestarazi nahi digu.

Gaur egun, BPGaren hazkundera oso txikia da; hala, 2014ko bigarren hiruhilekoan, BPGa % 0,9 hazi da EAEn eta % 1,6 Nafarroan. Errealitateak ezin gezurta daitekeen zerbait erakusten digu, alegia, ezartzen ari zaigun hazkunde ereduak desberdintasun handiagoa sortzen duela aberastasunaren banaketan eta nabarmen prekarizatzen dituela enplegua eta bizi-baldintzak.

### **• ENERGIAREN ETA BANKAREN OLIGOPOLIEN MENDE GAUDE, ETA HORREN ERAGINEZ ERRENTAK NEURRI IZUGARRIAN PASATZEN ARI DIRA PERTSONA, FAMILIA ETA ENPRESETATIK OLIGOPOLIO HORIETARA**

Ez dute ezer ere esan energiaren kostu handiari buruz, zeren eta, ñabardura txiki batzuekin, bat egiten baitute Estatuko gobernuek hartutako erabakiekin. Hala, modu aktiboan sustatu dute gure ekonomiarentzat funtsezkoa zen tresna baten likidazioa: euskal Kutxak eta Kutxabank, kontrol publikoarekin.

### **• EZ DA EZER EGITEN ENERGIA BERRIZTAGARRI ETA ORDEZKAGARRIEN ALDE**

Ez dago energia berriztagarri eta ordezkagarria sortzera zuzendutako politikarik, hots, epe eta baliabide zehaztuak dituen politikarik, klima-aldaketaren helburuak ere betetzea ahalbidetuko ligukeena. Ez dago intermodalitatearen eta garraio kolektiboaren aldeko planteamendurik. Aitzitik, errentagarritasun sozial txikiko azpiegituretan inbertitzen da, hala nola AHTan, eta frackinga eta Kantauriko erauzketa berriak lehenesten dira.

### **• EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GUTXIEGIZKO GARAPENA**

Sektore publikoa azken urteotako xahutze-politikaren biktima izan da. Altxortegi publikoa oso egoera larrian dago, ekitate fiskalik ez egotearen ondorioz. EAEko eta Nafarroako gobernuek egin dutena Bruselak eta



espainiar Estatuak bultzatutako politika neoliberalak modu itsuan betetzea izan da, besterik ez.

Legedia alor guztietan erreformatzearen bitartez, euskal instituzioak Estatuan gauzatzen diren politiken transmisore huts bilakatzen ari dira. Hori arriskua larrian jartzen ari da herri gisa gauzatu nahi dugun proiektu ekonomikoa.

- **SOLDATAKO BIZTANLERIAREN ORDAINSARIEK ATZERA EGIN DUTE, ETA, HORTAZ, BAITA ESKARI PUBLIKO ETA PRIBATUAK ERE**

2000 urtean, soldatak BPGaren % 51 ziren; 2012 urtean, berriz, % 46,4 baino ez. Enpresa-errentak, aldiz, % 42,4tik % 44,5ra pasatu dira garai berean.

Nafarroan, soldatak BGParen % 47 ziren 2000 urtean, eta % 42,1 soilik 2013an. Espainiar estatuan gertatzen den bezala, HEHn ere enpresa-errentak soldata-errentak baino handiagoak izango dira laster, aurreneko aldiz.

- **ENPLEGU SUNTSIPEN BASATIA**

2008 urteaz geroztik, 147.000 lanpostu suntsitu dira EAEn eta 35.400 Nafarroan. 2007ko Abendutik 2014ko Abuztura bitartean, Gizarte Segurantzak 139.785 afiliatu galdu ditu HEHn.

Kontratazio mugagabe berriaren tasa oso maila txikian mantentzen da. Izan ere, alde baterako kontratazioa da lan-merkatuan nagusitzen den dinamika. Kontratu berrien % 93,1 aldi baterako kontratuak ziren EAEn eta % 94,8 Nafarroan.

- **DESBERDINTASUNA AREAGOTU EGIN DA**

Lanik gabeko pertsonen % 53,7k ez du langabezia-prestaziorik jasotzen (LABen txostena).

Pobrezia eta gizarte-bazterketa arriskuaren tasa biztanleriaren % 17tik gorakoa da EAEn eta % 11 Nafarroan, Europako erreferentziatzko adierazlearen arabera (Arope). 2008tik 2011ra bitartean, % 41 hazi da EAEn eta % 71 Nafarroan.

HEHko 75.000 elkarbizitza-unitatek eskatu dute oinarrizko errenta edo gizarteratze Errenta.

HEHko 900.000 pertsona pobrezia-aren atalasearen azpian bizi dira -Europako erreferentziaren arabera, atalase hori 11.560 euro dira urtean-.

Datu horiek hondagarriak dira berez, eta are gehiago baldin eta ikusten badugu EAEko eta Nafarroako per capita errenta 33.478 eurokoa izan zela 2012an, eta EB-27ko batez bestekoa 25.100 eurokoa izan zela. Hori horrela, noren eskuetara joaten da errenta?

- **BAINA, HALA ETA GUZTIZ ERE, BADIRA EGOERARI BUELTA EMATEKO BALIABIDEAK**

Horrenbestez, aurtengo balantzea ezin da negatiboagorik izan, EAEko eta Nafarroako gobernua iruzurgile,



espekulatuzaile eta patronalaren eskutik joan diren urteetan gertatu den bezala.

Egoera dramatiko honen eraginez, gero eta pertsona gehiagok galtzen dute bizi-baldintza duinak lortzeko aukera, prekarietatea gero eta handiagoa da, eta horri gobernuen arduragabekeria gehitu behar zaio, zeren kea saltzeko ahaleginetan ari badira, hauteskundeei begira, gauzak ondo doazela esanez.

Bada, egia da gauzak ondo doazela, baina –adibidez- IBEX35eko enpresentzat, zeinetatik 33 sozietatek paradisu fiskaletan baitute beren egoitza; 467 sozietate 2012 urtearen amaieran. Haien kopurua bikoiztu egin da 2009az geroztik, ABCk (baloreen Agentzia nazionalak) argitaratutako datuen arabera.

Aurtengo lehenengo sei hilabeteetan, Ibex 35eko enpresek aitortutako mozkin garbia 14.900 milioi euro izan dira, iazko garai berean baino % 10 gehiago.

Estatuko bankak 7.449 milioi euro irabazi ditu aurtengo Urtarriletik Irailera. Kontuan hartu behar da, gainera, banku horiek 17.412 milioi euro bideratu zituztela saneamendu eta horniduretara Irailera arte.

Fedea-ren arabera, enpresa- eta kapital-errenten % 50 ogasunari ezkututzen zaio, hau da, 18.000 eta 19.000 milioi euro inguru urtean, estatu osoan. Horri gehitzen badiogu PFEZren eta Sozietateen gaineko zergaren iruzurra, iruzurraren osoko zenbatekoa BGParen % 4 da, gutxi gorabehera.

**Laburbilduz: arazoa ez da baliabide edo diru gutxi egotea pertsona guztiek bizi-baldintza duinak lortu ahal izan ditzaten. Jokoan dagoena aberastasunaren banaketa da. Bi aukera daude: bata, aberastasuna gutxi batzuen eskuetan metatzearen alde egitea, politika erregresiboak aplikatuz zergen eta aurrekontuaren alorretan; bestea, pertsonengan eta haien ongizatean benetan inbertitzearen alde egitea, ekoizpen-ehuna eta zerbitzu publikoak gizarte- eta ingurumen-irizpideez garatuz.**